

7-Funtzesko baliabideak:

Gure proiektua aurrera eraman ahal izateko, hainbat baliabide ezinbestekoak dira. **Gure likido berezia ikertzeko eta hobetzeko behar dugun teknologia eta laborategi** txiki bat izango ditugu, bertan formulak probatu eta segurtasun-testak egiteko. Bestalde, gure aplikazio digitala funtsezkoa da bezeroek autoaren egoera denbora errealean kontrolatu ahal izateko, eta horretarako **software-garatzailerak**, datu-base egonkorrak eta mantentze teknikoa beharrezkoak dira. Hori guztia kudeatzeko, Gasteizen izango dugun **denda fisikoa** eta bertako tailerra ere funtsezko baliabideak dira, han egingo baititugu instalazioak, mantentze-lanak eta bezeroei maketen bidezko erakustaldiak.

Noski, proiektua bera bezain garrantzitsua da gure taldea: **kimikariak, mekanikariak, teknikariak, marketin arduradunak eta bezeroarentzako arreta emango duten pertsonak**. Haien ezagutza eta lana gabe ezinezkoa litzateke gure ideiak aurrera eramatea. Azkenik, gure **marka-irudia ere funtsezko baliabidea** da; logoa, webgunea, sare sozialetako edukia eta diseinu korporatiboa. Honek guztiak gure produktuak transmititzen duen konfiantza indartzen du.

